

# BERROGEITA HAMAR URTE ORUEN

***ORUEN BATU GARA  
PRAILE, MONJA TA LAIKO;  
GEU ALKARTZEN BAGARA,  
GEU GARA NAHIKO.***

<p><b>1</b> Habitua jantzi nahiz amantala, jakizu karisma danontzat dala.</p> <p><b>4</b> Hau altxor ederra jausi jakuna, alkarregaz zaindu behar doguna.</p> <p><b>7</b> Jesusen atzetik nor jubilatu? Oilarrak jo dau ta espabilatu!</p> <p><b>10</b> Jesusen aurrean negar intziri... Baina Harek dino: "Jarraitu Niri".</p> <p><b>13</b> Eup! Anai-arrebok, aupa, senide! Zer poza Oruen danok mahaikide!</p> <p><b>16</b> Gu karismaz gara misiolari, zokotik urtenda ekin lanari.</p> <p><b>19</b> Hainbeste urtetan zenbat lan ta jai! Beste hainbestetan jo ta ke jarrai!</p>	<p><b>2</b> Batzutan otoitz ta bestetan lana, holan betetzen da Jaunak esana.</p> <p><b>5</b> Jesus deika dago: "Nun dago Simon, gaur gurutzedunei nok esku emon?"</p> <p><b>8</b> Pozik batu gara, jan-edan bapo; egunpasa batez bertan akabo?</p> <p><b>11</b> "Alperrik da''esan, ihes ta kito! Alberra ezin da izerdiz itol."</p> <p><b>14</b> Maitasunez gara aukeratuak, Pasino-karismaz bedeinkatuak.</p> <p><b>17</b> Familia baten gara alkarte, alkarri lotuta eutsi hil arte!</p> <p><b>20</b> Jaunak deitu deusku gaur eta hemen; gaur hemen erantzun esanaz: Amen!</p>	<p><b>3</b> Gurutzekoaren maitale fina, behartsuen alde dau bizi-grina.</p> <p><b>6</b> Bota bantzarrera mila atxaki, guk zenbat ahal dogun batek badaki!</p> <p><b>9</b> Praile, monja, laiko, gazte nahiz zaharrak; ez al gara danok Pasiotarrak?</p> <p><b>12</b> Badago zer egin, ez banaz lelo, berandu gabiltz ta, ez egon lolo.</p> <p><b>15</b> Benetan hartuta, itzi ametsa; kopla gixi eta emon baietza!</p> <p><b>18</b> Gurutzetik deia gaur jaso daigun: "Gora buru-bihotz, SanPaulo lagun!"</p>
<p>Oruen, 2006ko urriak 21</p> <p>A. Martzel</p>		